



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSA OHARRA

## Bizkaikoak "gogobetete maila altuko" kultur kudeaketa eredua gauzatzea lortu dau

Bilbon, 2013ko abenduaren 12an

Josune Ariztondo Kultura diputatua Batzar Nagusietara joan da gaur, EH Bildu eta PP taldeek eskatuta, Bizkaikoa izeneko erakundea martxan jarri zanetik hiru urte igaro eta gero izandako lorpenen balantzea egiteko. Foru erakundea 2010eko abenduan sortu zan, Bizkaian dagozan 5 museoren eta 8 ondare espaziotan ekintza koordinetako. Diputatuaren berbetan, lehenengo hiru urte horreen emaitzeak "gogobetete maila altua" erakusten dau. Bizkaikoak "kultur eta administrazio kudeaketa eredu positiboa indarrean jarteko eta kudeaketa horren lehenengo emaitzak ikusteko" balio izan dau, "hobetzen jarraitzeko" aukerak dituan arren. "Gure ustez, Batzar Nagusiak zuzen ibili ziran proiektua bultzatzea erabagi ebenean", adierazo dau.

Kultur arduradunak, denpora tarte horretan egin diran egiturazko aldaketa eta ekimen nagusiak aztertu ditu. Ariztondoren berbetan, Bizkaikoak 78 erakusketa antolatu ditu, 25 argitalpen kaleratu ditu, eta ehun tailer eta jarduera didaktiko baino gehiago ekoiztu ditu, 54 hitzaldiz gain. Erakusketen artean, diputatuak honeek azpimarratu ditu: Arkeologia Museoa egindako zeramikari buruzkoa, Euskal Herriko Museoa egindako Olaeta Balletei buruzkoa, Arkeologia Museoko historiaurreko faunari buruzkoa, edo Errekalde Aretoa antolatu diran Ramon Carrerari eta Rufo Criadori buruzko monografikoak eta Barriek programa.

Bere parte hartzean, diputatuak Ondareari buruzko Jardunaldi Europarrak aitatu ditu. Europar Kontseiluak 2001ean dibulgaziotako proiektu hori onartu ebanetik, Bizkaiak sentsibilizazio jardunaldi horreek programetan dituan "lurralde bakarra" izaten jarraitzen dau. Joan dan udazkenean Bizkaiko 65 udalerrik eta 80 erakunde pribaduk hartu eben parte programatutako 150 jardueretan.

Kudeaketaren atalean, zerbitzu batzuen zentralizazioak aurrezpen garrantzitsua ekarri dau. Ariztondok adierazo dauenez, Bizkaikoari esker, eraikinen garbiketa gastuak %16 murriztu dira eta zainketa gastuak %15. Ganera, azpiegituren mantentze lanetan be asko aurreztea lortu da. Adibide moduan, Europa parkearen azpiegituren mantentze lanetako faktureak "%45eko murrizketa" izan dau. Ganera, erakundeak 14 egunetara laburtu dau hornitzaileei ordaintzeko denporea, "eta garai honeetan enpresek asko eskertzen dabe hori".

Baliabideen eraginkortasunari esker, teknikariak "kultur eukietan" zentru ahal izan dira, eta horrek eragin handia izan dau eskaintzaren kalidadean, lehen beharginak "beste betebeharrak batzuk egiten" ibili behar ziralako, adierazo dau. Arlo horretan, Ariztondok adierazo dauenez 3 kontratatutako barri egin dira; 6 behargin muga bako kontratua izatera pasatu dira; eta beste 3 pertsonaren ordaintzak hobetu egin dira, egin behar dituen betebeharrak barrietara egokitzeko.

Erronkei jagokenez, Kulturako foru arduradunak, 2014ko lehenengo hilebeteetan Bizkaiko museoei buruzko web gunea jarriko dala martxan adierazo dau. Gaur egun Bizkaikoak daukan



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

web guneak izaera profesionala hartuko dau, alkartzeko eta trukatzeko leku bilakatuz. Ganera, Bizkaikoak, datorren ikasturtean museo batzuetara bisitak trenez egiteko aukerea aztertuko dau ikastetxeakaz (Arkeologia Museora, Euskal Herria Museora eta Arrantzalearen Museora).

Foru Erakundeak bere esku hartuko dau 2014an Boinas La Encartada museoaren eta Txakolinaren museoaren kudeaketea, eta Arrantzalearen Museoko lanak amaitzea aurreikusten dau. Diputatuaren ustez hobekuntzarako tartea dago oraindino erakundea gizarteari ezagutarazoteari eta zentroen sare propioaren artean erakusketa ibiltariak bultzatzeari jagokenez. Horrez gain, Ariztondok uste dau Bizkaikoaren Aholkularitza Kontseilua martxan jarteko “unea dala”. Adituz osatutako kontsultarako erakunde horretara Batzarretako lau taldeek izentautako profesionalak gehitzea gurako leuke.

Holan, Batzarretako taldeek onartu dabe, orokorrean, Bizkaikoa albiste ona izan dala. “Kudeaketa arloko barrikuntza horrek denporea eta dirua aurrezteak dakar”, onartu dau Irene Edesa EAJ-PNV-ko batzarkideak. “Behar ona egiten ari da”, gehitu dau Juan Otermin sozialistek. Goraipamenen artean eskari batzuetarako lekua be egon da. PP taldeak hainbat eskari egin ditu: argitalpenak web gunera igotea, euki garrantzitsuenen ingeleseko laburpenakaz; Bizkaikoan egindako esfortzua kanpoan egiten diran azoketara eroatea, Ficobara, adibidez; edo Ondareari buruzko jardunaldiak urtean birritan errepiketea. EH Bilduk galdetu dau ea beharrezkoa zan erakunde hori sortzea eraginkorrak izateko.

#### CABO VILLANOKO BATERIA MILITARRA

Saio berean, Ariztondok, Gorlizen dagoan Cabo Villanoko bateria militarra berreskuratzeari buruz erantzun deutso PP taldeari. Diputatuak gogoratu dau barriro 40ko hamarkadako defentsarako gotorleku horren jaubetza Defentsa Ministerioarena dala, eta Espainiako Gobernuari jagokola hori berreskuratzea, bera dalako titularra. Ez dau baztertu etorkizunean gazteei zuzendutako historiaren interpretazinarako lekua izatea, baina “lehenengo pausua Espainiako Gobernuak emon behar dau”. Puntu horretan ados agertu da EH Bildugaz.

#### ERAIKIN INTERESGARRIAK

Kultura eta Euskerako batzordeak aho batez onartu dau PP-k aurkeztutako Arauz Besteko Proposamena, Batzar Nagusiek agindua emon deioen Foru Aldundiari, obraren bat dala eta antxinako eraikinak bota behar diranean, “eraikin horreek legez babestuta egon ez arren edo babes maila txikia euki arren”, ordezeko aukerak kontuan hartu daitezkan, ahal dan neurrian gure ondarea babestu ahal izateko. PP taldeak, bost mende eukazan “Asteinza” baserri-etxea bota izana jarri dau adibide moduan. Baserri-etxe hori orain denpora gitxi bota da, Plentzia eta Mungia arteko errepidea zabaltzeko. PP taldeak jarritako beste adibide bat, Gipuzkoan dagozan 50eko hamarkadako beharginen herrixkak kontserbau izana izan da.

Gainerako taldeek be, lurreratze bakotxa aztertzea positiboa dala esan dabe. EAJ-PNV-ren ustez, hori dagoaneko egiten da. Kasu horretarako “Aldundiak jarduketa protokoloa dauka ezarrita”. Jon Sánchez batzordekide jeltzaleak gehitu dauenez, gatxa izan daiteke “interes



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

nabarmeneko” eraikina zer dan interpretetea. “Hoberena araudiari jarraitzea da, zalantzarik ez sortzeko”, esan dau. Gogoratu dauenez, Ondareari buruzko Legeak, Administrazio bakoitzaren erantzukizun eremuak, babestu beharreko eraikinak eta babes mailak zehazten ditu.

#### BAZTERTUTAKO PROPOSAMENAK

Beste alde batetik, batzordeak ez ditu onartu EH Bilduk aurkeztutako arauz besteko proposamen bi. Horreetako batean, koalizino abertzaleak eskaerea egin dau, Aldundiak Bizkaiko baseleizen –500 inguru– jaubetza aztertu daian, Udalek, une honetan jaube barik dagozan jaubetzak erregistrau ahal daiezan. Koalizino abertzaleak adierazo dauenez, gaur egun horreetako askoren jaubetza “ez dago bat be argi”, eta hori dala eta, Bizkaiko Gotzaindegiak edo norbanako “argiek”, erlijinoko tenplu txiki horreek euren izenean erregistretan ditue.

Ganerako taldeek ez dabe argi ikusten foru erakundea izan behar danik azterketa lan hori egin behar dauena. Esan dabenez, behar hori udalek edo Unibersidadea edo Eusko Ikaskuntza moduko beste erakunde batzuek egin beharko leukie. Ekimena ez da onartu. Aldeko 5 boto (EH Bildu eta PSE-EE), kontrako 6 (EAJ-PNV) eta abstentzino 2 (PP) jaso ditu.

Bukatzeko, batzordeak baztertu egin dau EH Bilduk aurkeztutako beste ekimen bat. Ekimen horren bitartez, eskaerea egiten jakon Aldundiari, Eskola-kiroleko prestakuntza arautua normalizetako plan estrategikoa aurrera erodateko eta “begirale ziurtagiri ofiziala” martxan jarteko. Ganerako taldeek esan dabe, oraingoan be, ez jagokola Bizkaiko Aldundiari hori egitea, Eusko Jaurlaritzari baino, Kirolene kirol irakaskuntzen zentro publikoaren bitartez. Ekimena ez da onartu EAJ-PNV eta PP taldeen kontrako botoakaz. PSE-EE abstenidu egin da.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

NOTA DE PRENSA

## **Bizkaikoa ha logrado materializar un modelo de gestión cultural "altamente satisfactorio"**

Bilbao, a 12 de diciembre de 2013

La diputada de Cultura, Josune Ariztondo, ha acudido hoy a las Juntas Generales para comparecer, a petición de EH Bildu y el PP, con el propósito de hacer un balance de explotación de los tres años transcurridos desde la puesta en funcionamiento de Bizkaikoa, una entidad foral creada en diciembre de 2010 para coordinar la acción de 5 museos y 8 espacios patrimoniales ubicados en Bizkaia. El resultado de este primer trienio ha resultado ser “altamente satisfactorio”, según ella. Bizkaikoa ha logrado "materializar y ver los primeros resultados de un modelo de gestión cultural y administrativo positivo” que tiene posibilidades de “seguir mejorando”. “Creemos que las Juntas Generales no estaban equivocadas cuando dieron el apoyo al proyecto”, ha afirmado.

La responsable cultural ha hecho un repaso de los principales cambios estructurales e iniciativas que se han llevado a cabo en este tiempo. Según Ariztondo, Bizkaikoa ha organizado 78 exposiciones, ha editado 35 publicaciones y ha producido más de un centenar de talleres y actividades didácticas, junto con 54 conferencias. Entre las muestras, la diputada ha destacado en este periodo las exposiciones dedicadas a la cerámica realizada en el Museo Arqueológico, la muestra de la Galerna o de la marina de guerra auxiliar en el Arrantzale Museoa, los Ballets de Olaeta en el Museo de Euskal Herria, la fauna prehistórica del Museo Arqueológico, o los monográficos de Ramon Carrera, Rufo Criado o el programa Barriek de la Sala Rekalde.

En su intervención, la diputada se ha detenido en las Jornadas Europeas de Patrimonio. Desde que el Consejo Europeo aprobó este proyecto divulgativo en el año 2001, Bizkaia sigue siendo “el único Territorio” en programar estas jornadas de sensibilización. El pasado otoño participaron 65 municipios vizcaínos y 80 entidades privadas, en las 150 actividades programadas.

En el capítulo de la gestión, la centralización de algunos servicios ha supuesto un ahorro importante. Ariztondo ha asegurado que gracias a Bizkaikoa se ha producido una reducción de costes del 16% en limpieza y del 15% en vigilancia de edificios, así como descuentos notorios en el mantenimiento de infraestructuras, como el del Parque Europa en donde se ha conseguido una disminución de la factura “del 45%”. Además, la entidad ha reducido el tiempo de pago a proveedores a 14 días, “cosa que agradecen mucho las empresas en estos tiempos”.

La eficiencia de los recursos ha permitido que los técnicos puedan “centrarse en los contenidos culturales”, lo que ha repercutido en la calidad de la oferta, ya que el personal estaba antes “disperso en otros cometidos”, ha afirmado. En este capítulo, Ariztondo ha señalado que se han producido 3 nuevas contrataciones; 6 trabajadores han pasado a tener contrato indefinido; y otras 3 personas han visto mejorar sus retribuciones para acomodarlas a sus nuevos cometidos.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Entre los retos, la responsable foral de Cultura ha anunciado para los primeros meses de 2014 la puesta en marcha de la página web sobre los museos vizcaínos. La web actual de Bizkaikoa pasará a tener carácter profesional como lugar de encuentro e intercambio. Además, Bizkaikoa explorará con los centros escolares la posibilidad de realizar el próximo curso visitas en tren a algunos museos (Arkeologi Museoa, el Museo Euskal Herria y al Museo del Pescador).

El ente foral pasará a asumir en 2014 la gestión del museo de Boinas La Encartada y el museo del Txakoli, y espera concluir las obras del Museo del Pescador. La diputada cree que existe margen de mejora en dar a conocer la entidad a la sociedad y en impulsar las exposiciones itinerantes entre la red propia de centros. Asimismo, Ariztondo piensa que “es tiempo” de poner en marcha el Consejo Asesor de Bizkaikoa, un órgano consultivo de expertos a los que espera sumar profesionales nombrados por los cuatro grupos junteros.

Precisamente, los grupos junteros han reconocido, en líneas generales, que Bizkaikoa ha sido una buena noticia. “Esta innovación en la gestión supone un ahorro en tiempo y dinero”, ha reconocido Irene Edesa, apoderada del PNV. “Se está haciendo un buen trabajo” ha añadido el socialista Juan Otermin. A las alabanzas se les han unido algunas demandas. El PP ha pedido que las publicaciones se suban a la web con resúmenes en inglés para los contenidos más importantes, que se traslade el esfuerzo de Bizkaikoa a ferias del exterior como Ficoba o que se repitan dos veces al año las jornadas de Patrimonio. EH Bildu se ha preguntado si era necesario la creación de esta entidad para ser eficientes.

#### BATERÍA MILITAR DE CABO VILLANO

En la misma sesión, Ariztondo ha respondido al PP en relación a la recuperación de la batería militar de Cabo Villano ubicada en Gorliz. La diputada ha vuelto a recordar que esta fortaleza defensiva de los años 40 es propiedad del Ministerio de Defensa y corresponde al Gobierno español su recuperación como titular. No ha cerrado las puertas a que en el futuro pase a ser un lugar de interpretación de la historia para los jóvenes, pero el “primer paso lo debe de dar el Gobierno español”, en lo que han coincidido con EH Bildu.

#### EDIFICACIONES DE INTERÉS

La comisión de Cultura y Euskera ha aprobado por unanimidad una Proposición No de Norma del PP para instar a la Diputación Foral a que, cuando surjan posibles necesidades de derribo de edificaciones antiguas por la construcción de alguna infraestructura, se valoren otras opciones a fin de preservar estos edificios, "aunque no tengan protección legal". El PP ha puesto como ejemplos el derribo del caserío "Asteinza", con cinco siglos de antigüedad, recientemente derruido para ampliar la carretera de Plentzia a Mungia, o el mantenimiento de algunos poblados obreros de los años 50 situados en Gipuzkoa.

El resto de grupos ha coincidido en que es positivo que se estudie cada derribo. El PNV cree que es una labor que ya se está haciendo. Para estos casos, “la Diputación tiene establecido un protocolo de actuación”. El apoderado jeltzale Jon Sánchez ha añadido que puede ser difícil de



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

interpretar qué es una edificación “de interés notorio”. “Lo mejor es fijarnos en la normativa para no crear incertidumbre”, ha dicho, recordando que la Ley de Patrimonio establece los espacios de responsabilidad de cada Administración, los edificios a proteger y los grados de protección.

#### PROPOSICIONES RECHAZADAS

Por otro lado, la comisión ha rechazado dos proposiciones no de norma presentadas por EH Bildu. En una, la coalición abertzale pretendía que la Diputación investigase la propiedad de las ermitas de Bizkaia - unas 500- para que los ayuntamientos puedan registrar las propiedades que en estos momentos se encuentran sin dueño. Según la coalición abertzale, a día de hoy, la propiedad de muchos santuarios “es muy confusa”, lo que ha provocado que el Obispado de Bizkaia o particulares “avispados” pongan a su nombre estos pequeños templos religiosos.

El resto de grupos ha puesto en duda que tenga que ser la institución foral la que se encargue de hacer esta labor de estudio, que bien podrá recaer en los propios ayuntamientos afectados o en otras instituciones como la Universidad o Eusko Ikaskuntza. La iniciativa ha decaído por 5 votos a favor (EH Bildu y PSE-EE), 6 en contra (PNV) y 2 abstenciones (PP).

Finalmente, la comisión ha rechazado otra iniciativa de EH Bildu con la que se pretendía que la Diputación desarrollase un plan estratégico para la normalización de la formación reglada del deporte escolar y pusiera en marcha el "certificado oficial de monitor". Los demás grupos han señalado de nuevo que no corresponde al Ejecutivo vizcaíno realizar esta labor, sino que es competencia del Gobierno Vasco a través del centro público de enseñanzas deportivas Kirolene. La iniciativa ha sido rechazada con el voto contrario de PNV y PP, y la abstención del PSE-EE.